

ISSN: 2530-6561
2023ko azaroa
Bilbao

hegoak zabalduz

Hegoa, Nazioarteko
Lankidetzeta eta
Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua

Universidad del
País Vasco /
Euskal Herriko
Unibertsitatea
UPV/EHU

Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat

Laura Feal Sánchez

Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat

Laura Feal Sánchez,
Hahatay – son risas de Gandiol (Sant Louis, Senegal)

Aurkibidea

Sarrera	4
1. Kontzeptu bat zalantzan jartzea	8
2. Komunikabideek garapenarekin konprometitutako herritarren eraketan betetzen duten eginkizuna	11
2.1. Komunikabideei begirada azkarra	11
2.2. Gure proposamenak	11
3. Dena da komunikazioa	14
3.1. Komunikazio komunitarioa	14
3.2. <i>DEFART JOTNA</i>	15
3.3. Komunikazio Komunitarioan Gaitzeko Zentroa	16
4. Profesionalei deika	19
5. Ondorioa: elkarrizketa zabaltzea: migratzeko askatasuna, bisitatze eskubidea eta maitasunaren ahalmena	22
6. Erreferentzia bibliografikoak	23

Erredakzio kontseilua

Zuzendaritza: Iker Etxano
Irati Labaien

Kideak: Eduardo Bidaurrezaga
Xabier Gainza
Amaia Garcia
Itziar Mujika
Unai Villena
Iker Zirion

hegoak zabalduz euskarazko material bildumak ikuspegi zabal batetik garapenarekin lotutako askotariko gaiak jorratzea du helburu. Testuak didaktikoak eta dibulgazio mailakoak dira, eta gaien inguruko sarrera edo ikuspegi orokorra ematen dute.

[Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat](#)

Egilea: Laura Feal Sánchez

hegoak zabalduz - 29. zk. 2023ko azaroa

ISSN: 2530-6561



www.hegoa.ehu.eus

UPV/EHU. Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao

Tel.: 94 601 70 91
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Elhuyar Plaza, 2
20018 Donostia-San Sebastián

Tel. 943 01 74 64
Faxa: 94 601 70 40
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Arabako Campuseko Liburutegia

138. posta-kutxa
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz

Tel. / Faxa: 945 01 42 87
hegoa@ehu.eus

Diseinua eta Maketazioa: Marra, s.l.

hegoak zabalduz material bilduman argitaratzen diren testu guztiak,
Creative Commons en lizentzia honekin argitaratzen dira:

Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 3.0 Espainia.

Lizentzia osoa:



<https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/legalcode.eu>

Finantzatzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Turismo, Juventud y Deportes

Laburpena: Komunikazioa funtsezko sektorea da, pentsamendua moldatzen baitu. Garapenarekin duen harremana ez da ausazkoa, eta askotariko helburuak lortu nahi izan ditu historia hurbilean zehar. Artikulu honetan Senegalgo erakunde batek lankidetzaren alorreko euskal eragileekin harreman estuan zuzendutako esperientzia praktikoa aurkeztuko dugu. Bertan, elkarrekin hizketan dihardute bi kontzeptu horiek, muga kontzeptual, politiko eta geografikoak gaindituz.

Hitz gakoak: Komunikazioa, garapena, Afrika, komunitatea, informazioa

Abstract: Communication is a key sector that shapes thinking. Its relationship with development is not random and has pursued different objectives throughout recent history. In this article, we present a practical experience led by a Senegalese organisation, in close relationship with Basque cooperation agents, in which both concepts dialogue across conceptual, political and geographical borders.

Keywords: Communication, development, Africa, community, information

Sarrera

Ezer gutxi erants dezakegu Garapenerako Komunikazioaren sarrera teorikoan ez denik jadanik islatu 2000ko hamarkadako lehen urteetan sortutako azterlan ugarietan, non bi kontzeptu horiek "giza garapeneraren" ideia berriaren eskutik lotzen joan baitziren. Errok azaltzen duen bezala (2002:43): "Garapeneraren kontzeptu osoago eta konplexuagoetarantz egiten dugun heinean (agortezinak ekonomiaren alorrean), aldatu egiten da komunikazioaren zeregina. Giza garapenerari buruz hitz egitean, harreman soziokulturalak, subjektuen identitateak eta parte-hartze eta sormen kolektiboa azpimarratu ohi dira".

Hala, 2010eko hamarkadaren hasieran, "garapenerako komunikazioa" (GK) terminoa erabiltzen hasi zen. Nazio Batuen arabera (NBE), pertsonen aukerak zabaltzeko eta, beraz, garapenera aurrera egiteko modu garrantzitsuenetakoa bat da. "Komunikazio prozesuak funtsezkoak dira ahalduntze jardunak zabaltzeko. Horien bidez, pertsonak beren kabuz lortzen dute gaiak ulertzea, ideiak aintzat hartzea eta eztabaidatzea, tokiko eta nazioko eztabaidetan negoziatzea eta parte hartzea (NBGP, 2011:1)", Nazio Batuen Garapenerako Programak (NBGP) argudiatzen duenez.

Definizio horren arabera, garapenerako komunikazioa zeharkako prozesu bat da. "Ahalduntze prozesuetan, garapenerako komunikazioaren zeregina lagungarria da beste komunikazio modu batzuetatik bereizteko (esaterako, komunikazio instituzionaletik edo korporatibotik). Ahalduntzean betetzen duen rola kontuan hartuta, ezinbesteko osagaia da Milurtekoko Garapen Helburuak (MGH) eta garapenerako beste lehentasun batzuk lortzeko ahaleginak planifikatzeko" (ibid., 1), adierazten zen agiri horretan.


Azken hamarkada honetan hura zehazteko eta garapen agentzia handiek beren praktikan txertatzeko aurrerapausoak egiten ari badira ere, haren lurreratzeak zailtasunak dakartza gobernu kanpoko beste erakunde batzuentzat. Maila teorikoko erronkei buruz ari gara, baina baita erronka teknikoei eta aurrekontuen alorrekoei buruz ere, ikuspegi hori modu iraunkorrean txertatzeko asmoz, eskubideen titularren eta betebeharren arduradunen, hau da, herritarren eta erabakitzaileen, arteko elkarrizketa bat balitz bezala, hori baitu azken helburua.

Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeetan (GGKE) garapenerako komunikazioa beste jardura batzuk osatzen dituen esku-hartzerako ildo gisa erabiltzen da: informazioa eta komunikazioa tresna baliagarriak dira herritarrak gizarte arazoei buruz sentsibilizatzeko (ingurumena, osasun sexuala eta erreproduktiboa, etab.) eta proiektua kokatzen den testuinguru jakin batean erdietsi nahi diren garapen helburuak lor daitezen laguntzeko.

Iparralde Globaleko herrialde emaleetan, garapenerako komunikazioa komunikazio instituzionalaren tresna gisa identifikatzen da (bai erakunde finantzatzaileentzat, bai GGKEentzat), dela publizitate instituzional gisa, dela kontuak emateko estrategia gisa. Beste erakunde batzuentzat Garapenerako Hezkuntzaren (GH) lan eremutzat hartzen da, kontzientziarioari, gizarte mobilizazioari eta eragin politikoari lotuta.

Hala ere, gure ikuspegitik, esparru zabalago batean ulertu behar da Garapenerako Komunikazioa, bai kontzeptuari dagokionez, bai hura aplikatu behar duten eragileen aniztasunari dagokionez. Ildo horretatik, lan handia dago egiteko, eta hirugarren sektorea parte bat baino ez da elkarrizketa zabal horretan, non komunikabideek, komunikazioko profesionalek, administrazio publikoek, gizarte zibilak eta akademiak inplikatu behar baitira komunikazio horizontalago eta inklusiboago batean aurrera egiteko, pertsonak ahalduntzeko eta eztabaida eta parte-hartze soziala bultzatzeko, garapen politikak zehazteko prozesuen ezinbesteko parte gisa.

Prozesuak zentzua izan dezan, Hegoalde Globaletik gidatu beharko da. Zintzotasunez eta modu kritikoan garapenerako komunikazioan aurrera egin nahi badugu, aintzatetsi egin behar ditugu beste ahots horiek, zuzenean dagokien eztabaida batean mendekotzat hartzen direnak. Bada garaia Mendebaldetik beste latitude batzuetan pentsamendua sortzen ari diren eragileak entzuteko, arrotz zaizkigun esparruak, erritmoak eta hizkuntzak onartzeak dakarren apaltasunarekin. Baita izan litezkeen akatsak onartzeko garaia ere.



1. irudia. Gall-Petersen mapamundia, munduaren ikuspegi kolonialistaren 400 urtetik gorako imajinarioa zuzentzen duena. Iturria: BBC¹.

1 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri:
[<https://www.bbc.com/mundo/noticias-39348563>]



2. irudia. Afrikar kontinentearen munduaren gainerako lurraldeekiko ikuspegi distorsionatuari buruzko mapa kritikoa. Iturria: Kai Krause "The True Size of Africa".



3. irudia. Senegalek Afrikan duen eta Saint Louisek Senegalen duen kokapenaren mapak. Iturria: Universalis.

Illo horri helduz, ale honetan Hahatay son risas de Gandiol esperientzia hurbilduko dugu, hamarkada batez Senegal iparraldean diharduena. Hahatay Senegalgo elkarte bat da, Mamadou Dia fundatzailearen migrazio esperientzia bikoitzetik sortua: 2006an, ekintzaile gazte hura ez zen konformatu bere inguruan eskaintzen zizkioten aukerekin, ezta Europako herrialdeek Frantzia goi-mailako ikasketak jarraitzeko jartzen zizkioten oztopo burokratikoekin ere. Hori dela-eta, beste aukera arriskutsu bat hartzea erabaki zuen.

9 urtez Espainian barrena ibili ondoren, eta, ezinbestean, bere nortasunari, sozietateari eta politikari buruzko zalantzak izan ondoren –“3052 Persiguiendo un sueño”² liburuan azaltzen du–, Mamadouk jaioterrira itzultzea erabaki zuen, haren garapenean modu aktiboan jarduteko konpromisoa hartzeko. Migrazio esperientzia berri bat zen, oztopoz eta aurreiritziz betea hura ere, gazteen artean aldaketa eta kontzientzia kritikoa sortzea helburu zuen proiektua abian jartzeko. Horretarako, erakundeak bi jardun ildotan lan egiten du: migratzea eskubidea da (sentsibilizazioa, informazioa eta eragin politikoa) eta Gandiol El Dorado da (garapen komunitarioa).

Ndiebene-Gandioleko landa komunan egin du hori guztia, hangoa baita bera. Senegalgo (Saint Louis eskualdea) ipar-mendebaldean dago, Saint Louis hiritik 20 kilometrora eta 30 landa herrixkaz osatua da. Herrialdeko landa komunitate handi eta kalteberenetako bat da, kostaldeko higadurak eta klima aldaketak bertako bizimoduetan, nekazaritzan eta arrantzan izan duen eragin negatiboaren ondorioz. Hori dela-eta, gazte askok kanpora alde egin dute lan bila.

Misioa abian jartzeko, erakundeak Euskal Herriko erakunde publikoekin lan egiten du estuki, bere bazkide kontraparte nagusien bitartez: KCD GGKEa eta Hezkuntza eta Kulturarako Aminata Elkarte batez ere, gizarte zibil antolatuko beste erakunde batzuekin batera.

Erakunde horren esperientzia interesgarria da, oinarri baititu garapenerako komunikazioaren kontzeptu tradizionala gainditzen duten esperientziazko praktikoa, eragin politikoa eta ezagutzaren trukaketa. Proposamen horrek norbere buruarekin, naturarekin eta gainerako pertsonekin harremanetan jartzeko/komunikatzeko beste modu batzuk sendotzeko helburuarekin egiten du aurrera, lengoia propiotik abiatuta baina bokazio globalarekin. Esplizituki aitortzen du komunikazioa garrantzitsua dela inguru ulertzeko eta dagozkion politiken eztabaidan modu aktiboan parte hartzeko gai izango den gizarte baten egituraketan.

Bloke hauen bitartez aurkezten da:

- Kontzeptu bat zalantzan jartzea
- Komunikabideek garapenarekin konprometitutako herritarren eraketan duten zeregina
- Komunikabideen ikuspegi laburra
- Gure proposamenak
- Dena da komunikazioa
- Garapenerako komunikazio komunitarioa
- *Lab Def'art Jotna*
- Komunikazio Komunitarioan Gaitzeko Zentroa
- Profesionalei deika
- Ondorioa: Elkarriketa zabaltzea: migratzeko eskubidea, bisitatze eskubidea

2 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri: [<https://www.diamamadou.com/es/about-3>].

1. Kontzeptu bat zalantzan jartzea

Amartya Sen indiar ekonomialaria, hautapen sozialaren, ongizate ekonomikoaren eta giza garapenaren teoriaren inguruan egindako lanengatik nazioartean aintzatetsia, lehenetakoa izan zen baieztatzen, askoren artean, garapena ez dagoela hazkunde ekonomikoari, aurrerapen teknologikoei edo industrializazioari soilik lotuta, eta "gizabanakoen benetako askatasunak hedatzeko prozesutzat" (Sen, 2000:19) hartu behar dela. Beraz, garapena egon dadin, askatasuna mehatxatzen duten faktoreak desagerrarazi behar dira, hala nola pobrezia, aukera ekonomikorik eza, gizarte zerbitzu publikoak kentzea eta bertan behera uztea edo estatu batzuen esku-hartze errepresiboa. Pobrezia, beraz, oinarrizko ahalmenez gabetzea da, diru sarrerarik eza baino zerbait gehiago.

Azken urteetan, Sarr ekonomialari eta idazleak (baina ez hori bakarrik: editorea, musikaria, filosofoa ere bada) pentsalari afrikarren artean "garapen" hitzaren inguruan zebiltzan ondoez horiek jaso eta kontzeptualizatu zituen, "Afrotopia" saiakeran (Sarr, 2016). Kontinente baten beharriaz buruzko hausnarketa labur baina sakona da, inondik ere. Haren ustez, kontinente horrek ez luke mendebaldeko bizitza imitatu behar, bere buruari barnetik begiratu baizik, bere nahiak ezagutzeko. Afrikarrek berek asmatutako planen eta proiektuen arabera garatu behar du. Horregatik, Pablo Linderi *El País* egunkarian azaldu bezala³, "arbuia" egiten ditu nazioarteko laguntza eta Nazio Batuen planak; "gaur egun planteatuta dauden bezala behintzat".

Horretarako, ekonomia adierazleei obsesiboki begiratzeari utzi eta zenbait "balio birgaitzea" proposatzen du. Senegalgo gizartean honako hauek izango lirarteke balio horiek: *jom* (duintasuna), *vivre-ensemble* (komunitate sena), *teraanga* (abegikortasuna), *kersa* (lotsa, eskrupuluak), *ngor* (ohorea), kulturen humanismoa. Afrikak duena, eta ez bakarrik falta zaiona, kontuan hartuko duen kontakizun propioa osatzearen alde egiten du.

"Afrikak ez du zertan inoren mailan jarri. Bere ahalmenen mailan egotea da erronka bakarra" (Sarr, 2016:138) haren esaldia kontinentean teoriarik askok pentsatzen dutenaren laburpena da gaur egun, baita aldatzeko gogoia duen hainbat gaztek jantzitako elastikoen eslogana ere.

Ngugui Wa Thiong'o filosofo eta idazle kenyarrak "Deskolonizatu adimena" liburuan (Thiong'o, 1986) azaldu zuenez, kontrol politiko eta ekonomikoak ezin du erabatekoa izan, ezta eraginkorra ere, adimenak menderatu gabe. Thiong'oren arabera, herri baten kultura kontrolatzea haren burua beste batzuekiko definitzeko tresnak menderatzea da. Hori da Hahatay elkartetik Gandioleko gure inguruan nabarmen ikusten duguna, eta, beraz, joera hori alderantzizatzeko helburuarekin lan egin behar da: norberarenari –hizkuntzak barne– balioa ematea, diskurtsoak eta narratibak –hizkuntza, imajinarioak– eraldatzea, eta herrien beren konplexutasuna eta pentsamendua barne hartzea; horretarako, funtsezko elementua da komunikazioa.

Ilido berean mintzatu zen Erro, adierazi zuenean komunikazioak berebiziko garrantzia izan duela Iparralde Globaleko bizi eredu erreproduzitzea oinarri hartzen duen garapen ideiarekin zabalkundean: pertsona garatua izateko mendebaldeko pertsonak bezalakoa izan behar da, eta haiek bezala bizi. "Komunikatzea ahalegin hedatzaile gisa ulertu zen (gure gizarte eredu paradigma unibertsal gisa zabaltzea), baita norabide bakarreko lan pedagogiko gisa ere (besteari irakastea, harengandik eta harekin ikasi gabe). Ondorioz, garapen eta komunikazio eredu ez-dialogikoen arteko korrespondentziaz hitz egin dezakegu (ibid., 44)", azaltzen du.

3 "África estaría mejor sin dinero de fuera", Pablo Linde, *El País*, 2019ko ekaina (2023ko ekainaren 10ean kontsultatua), hemen eskuragarri: [https://elpais.com/elpais/2019/06/14/planeta_futuro/1560512139_540659.html]

Joera hori iraultzeko unea da, UNESCOren Afrikaren lehentasunaren aldeko estrategia operazionala (2022-2029) estrategian jasotzen den bezala. Estrategia horretan berriaz onartzen da "Afrikako herrialde gehienek ondare koloniala jaso dute, eta horrek ahuldu egiten ditu; ondorioz, gutxienez kolonia osteko garaiko funtsezko bi zeregin egin behar diete aurre: i) estatu nazioak sortzea, batasun eta kohesio nazionalan oinarrituta, herritarren kontzientziarekin eta afrikar erreferentzia kultural komunekin; ii) oinarri endogenoak eta metagarriak sortzea, garapen bizkorra eta iraunkorra lortzeko. Belaunaldiz belaunaldi historia, hizkuntza eta kultura ondarea sendotu beharko luketen hezkuntza sistemak nabarmen ahuldu eta baztertu dira edo misio kolonizataile batek menderatu ditu, eta Afrikako kulturen eta hizkuntzen devaluazioa barneratu da. Testuinguru horretan, lortu nahi den hezkuntza eta kultura eraldaketak, 2063ko Agendan eta Afrikako Bepizkunde Kulturalaren aldeko Gutunean eta 2030eko Agendan islatuak, 'Afrikari buruzko benetako afrikar kontakizun berri bat' sustatzen du, Afrikaren Historia Orokorrean, bertako hizkuntzetan eta ondarean oinarritutako historiaz birjabetuz. Hauek dira haren birfundazioaren oinarriak: eskola sistemen erreforma, ikerketa historikoaren garapena, hezkuntza etengabeko prozesu gisa ezartzea eta, azkenik, balizko gizarte aldaketa" (Afrikar Batasunaren Batzordea, 2015: 8-9).

2. Komunikabideek garapenarekin konprometitutako herritarren eraketan betetzen duten eginkizuna

Hahatay garapen komunitarioaren inguruan lan egiten hasi zenean, konturatu ginen gazteen imajinarioak "kanpora begirakoak" zirela. Senegal herrialde frankofonoa da, nahiz eta 17 hizkuntza nazionaletako batek –wolofera–, ofiziala izan gabe, komunikazio hizkuntza gisa funtzionatzen duen. Eskola programa frantsesez da, eta Frantzia da oraindik ere gazte askoren erreferentzia eta ametsa⁴. Komunikazioak funtsezko zeregina du, halaber, gazteen frustrazio horretan; eta horrek, era berean, ingurune hurbilaren ahalmenak ikusteko zailtasuna dakar. Aukerak ikusteko, gabeziak ikusi ordez.

Afrikako zein Mendebaldeko komunikabideek eragin handia dute senegaldarrek beren nortasunari, potentzialtasuni eta itxaropenei buruz duten imajinarioan. Errealitate horren ondorioz, Europako bizitza idealizatu eta Afrikako bizitzari balioa kentzen zaio, gaur egungo kontsumo gizartean sistema kapitalista basatiak irudikatzen dituen balioei lotuta. Gandiol herri migratzailea izanik (azken hamarkadetan bereziki gizon gazteek alde egin dute bertatik), komunikabideetan irudikapen horien kontsumoa migrazioarako bultzada gisa identifikatzen da, garapenaren ideia faltsuak bideratua.

Bai masa komunikabide horietan, bai beste sozializazio tresna batzuetan, hala nola eskolan, oso sartuta daude oraindik ere potentzia kolonizatzaile ohien ideologiak eta kanpotik datozen estereotipoen ugalketak. Estereotipo horien ondorioz, gazteak "kanpora begira" egoten dira, eta horrek eragotzi egiten du norberaren ezagutza eta garapena, eta etengabe amesten dute errealitatetik urrun dagoen Urrezko Europa batekin.

"Identitatearen gaia oso presente dago Senegalgo gazteengan, horri dagokionez apur bat galduta sentitzen baitira. Askotan, ile kizurreko belztzat baino ez dute jotzen beren burua, XIX. mendeko teoria arrazistek eraikitako estereotipoak erreproduzitzen ari direla konturatu gabe", azaldu du Frédérique Louveauek, Saint Louiseko Gaston Berger Unibertsitateko Antropologiako irakasleak. "Ezin da ukatu kanpotik kontinentean proiektatzen diren irudiek herritarrengan duten eragina", ohartarazi du⁵.

"Kontsumoko" informazioaren azkartasuna eta talde mediatiko handien interesa direla-eta, jasotzen den informazioa partziala eta interesatua da, eta ez dago herritartasun kritikoa eta kontzientea sortzen lagunduko duen ikuspeirik.

Gainera, emakumeek oso rol urria dute komunikabideetan, bai informazioaren produkzioaren alderdi teknikitik, bai emakumeei interesatzen zaizkien edo emakumeak protagonista diren gaiei buruzko informazioaren tratamenduan; izan ere, komunikazioa ez dago genero ikuspegiarekin pentsatuta, ezta hala ekoiztuta ere.

4 "Cómo descolonizar los libros de texto en África", Laura Feal, El País, 2017. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri:

[https://elpais.com/elpais/2017/08/23/planeta_futuro/1503488254_926649.html]

5 "Cómo descolonizar los libros de texto en África", Laura Feal, 2017. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri:

[https://elpais.com/elpais/2017/08/23/planeta_futuro/1503488254_926649.html]

2.1. Komunikabideei begirada azkarra

Senegalen, komunikabide gutxik ematen dute hurbileko informazioa, eta kanpotik iristen dira gehienak, tokiko errealitateetatik kanpoko begirada batekin. Irratia da, oraindik ere, herritarren hedabide gogokoena, nahiz eta azken urteotan asko hedatu den Internet.

Hala ere, Senegalgo Irrati Asoziatibo eta Komunitarioen Batasuneko (URAC) ordezkariaren arabera, "irradi publikoak propaganda politikorako tresna gisa erabiltzen dira askotan, irradi pribatuek interes komertzialen arabera dihardute, eta irradi komunitarioek sustatzen dute garapen komunitarioa, nortasun kulturalak markatutakoa, eta funtsezkoak dira, landa eremuetan batez ere"⁶.

Telebistako eskaintzari dagokionez, oro har, ez du ikuspegi sozial eta informatiborik, eta eztabaida programei eta fikziozko telesaileri ematen zaie lehentasuna (oso arrakastatsuak dira senegaldarren artean). Gizartea sentsibilizatzeko hainbat folletoi daude, hala nola, *C'est la vie* ("Horrelakoa da bizitza", frantsesez). Folletoi horretan, bereziki emakumeei eragiten dieten gaiak lantzen dira, kontsulta ginekologiko bat ardatz hartuta, baina, oro har, "bihotzeko" gaiak lantzen dira bertan.

Zinemaren industriari dagokionez, urtero 50 edo 60 ekoizpen zinematografiko inguru egiten dira Senegalen. Estatuak apustu handia egin du ekoizpenaren alde, eta zazpigarren artea sustatzeko funts bat jarri du martxan (FOPICA); azken urteotan film nazionalak oso harrera ona izan dute nazioartean, bai kritikaren aldetik, bai ikusleen aldetik. Arazo nagusia banaketa eta proiektio nazionala da, atzerriko kultur zentro edo erakundeak baitira proiektatzeko leku nagusiak, hala nola *Institut Français* edo *Goethe Institut* alemana. Edonola ere, azken urteotan bi zinema areto berri zabaldu dituzte Dakarren.

Prentsa askatasunari dagokionez, 2012ko apirilean Macky Sallék boterea eskuratu zuenetik, herrialdea noraezean joan da, modu arriskutsuan joan ere; horren ondorioz, prentsa askatasunaren indizeari dagokionez 2014. urtean 62. postuan egotetik 2023an 104. postuan egotera igaro da herrialdea (180 herrialderen artean). Mugarik Gabeko Erreportariak erakundeak, 2023ko txostenean (maiatzaren 3an argitaratua⁷), hau zioen: "Senegalgo aniztasun mediatikoak aurrez aurre du politikaren nagusitasuna informazioaren tratamenduan, egunkarietan batez ere. Tradizioz, herrialdeak prentsaren aldeko testuingurua eskaintzen badu ere, azken urteetan areagotu egin dira kazetarien aurkako hitzezko mehatxuak, mehatxu fisikoak eta judizialak, eta horrek aditzera ematen du informaziorako eskubidea higatzen ari dela". Testu hau idazten ari zela, 2023ko ekainean, erakundeak Salleren gobernuari kargu hartu dio zentsuragatik, kazetariak espetxeratzeagatik eta Internetarako sarbidea murrizteagatik⁸.

2.2. Gure proposamenak

Horregatik guztiagatik erabaki zuen Hahataytik komunikazio eta kultura tresnak jartzea abian, antzemandako egoera ahal zen neurrian arintzeko. Era horretara Gandiolgo gazteek beren diskurtsoak sortzea zen asmoa, hitzez, irudiez, beren intereseko gaiez berriro jabetzea, kanpoko agenda mediatikoen mende egon gabe, eta beren formatuetan eta lengoiaekin egitea hori.

6 Hahatayk 2018an Aminata Kultura Zentroan antolatutako Komunikabide komunitarioei buruzko Topaketan jasotako informazioa, KCD GGKEarekin, Hezkuntzaren eta Kulturaren aldeko Aminata Elkartearekin lankidetzan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren finantzaketarekin.

7 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri:
[<https://rsf.org/es/clasificacion>]

8 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri:
[<https://rsf.org/fr/sénégal-rsf-dénonce-une-série-datteintes-à-la-liberté-de-la-presse>]

Horrela sortu zen 2018an Gëm Sunu Bopp FM irrati komunitarioa ("geure buruarengan sinetsi", woloferaz). "La voie et la voix de la communauté" (komunitatearen ahotsa eta bidea, frantsesezko hitz jokoa eginez) da irrati horren leloa. 2019. urteaz geroztik hiru gaztek koordinatzen dute irrati –zuzendari batek, programen arduradun batek eta teknikari batek–, eta hamabost bat lagunek egiten dute lan bertan, borondatez. Saioak erabakitzeo, herritarrei egindako inkestetatik ateratako diagnostikoak hartu dira abiapuntutzat, inkesta horiek entzuleen gustu eta interesei buruzko gidalerroak baitira. Programa horietako bat *pular* hizkuntzan egiten da (Gandiolgo biztanleriaren zati bat mintzatzen da hizkuntza horretan), beste batean emakumeen osasunaz hitz egiten da, fikziozko irrati sail bat egin da, beste bat adineko gizon erlijiosoen talde batek darama, beste batean 65 urteko emakume batek etxeko tradizioez hitz egiten du... Bertatik igaro dira ikasleak, rap abeslariak, zinema zuzendariak eta abar.

Ez zuzendaritza lanean dabilen taldeak ez erreportari talde komunitarioak ez zuten alde zuzeneko prestakuntzarik irratia esparruan; aitzitik, KCD GGKEarekin, Aminata Elkartarekin eta Bilboko Udalarekin (5 urtez babestu du prozesua) egindako proiektuen esparruan eskaintako tailerrei esker trebatu dira. Horrez gain, noizean behineko kolaborazioak ere izan dituzte, hala nola Radio Nacional de España – Radio 3, Radio France Culture edo, modu jarraituagoan, COPEko Beatriz Mesa kazetariarekin egindakoak, zeinarekin Mendebaldeko Afrikako azpieskualdean intereseko gaien programa berezi bat sortu baita, Global Radio izenarekin.

"Gandiol matin" da arrakasta gehien duen programa. Goizeko magazin bat da, eta bertan mahai inguru bat egoten da; komunitateko 4 edo 5 lagunek tokiko eta nazioko albisteei buruz jarduten dute hizketan. Parte-hartzaileak aldatuz doaz, baita "platoak" ere, eta askotan estudiotik ateratzen dira entzuleekin elkartzeko.

FMko 88.3 zenbakian ematen da, baina Ivooxen, Youtuben eta Facebooken ere badu kanal bat, eta gero eta maizago emititzen du horietatik, kanpoan Gandiolgo diasporarekin konektatzeko interesa dagoela ikusi delako. Ohikoak diren arren migratutako pertsonen –bai Dakarrera bai herrialdeko beste hirigune batzuetara, azpieskualdera edo Europara– eta herrian geratzen direnen arteko komunikazioak, familiaren eremukoak ziren beti. Diasporako kideak komunitateko ahots gisa hartzeak haien eginkizun sozioekonomikoa aitortzea eragin du, eta haien arazoei entzuteko gune bihurtu da.

Gaur egun, Gandiolgo irrati komunitarioko lantaldeak Saint Louis eskualde osoko ekitaldien berri ematen du, eta *podcast*ak egiten dituzte Saint Louiseko Zinema Dokumentalaren Jaialdirako edo Institut Françaiserako, besteak beste. Era horretara, funts propioa edukitzea lortu dute, materialak erosteko, konponketak egiteko eta irratitik urrun dauden herrietan bizi diren kolaboratzaileei garraioa ordaintzeko.

Idea horri berari jarraituz muntatu zen Fëss Prod ikus-entzunezko ekoiztetxea ("erakutsi, distiratu" woloferaz): komunitatea komunitatearen beraren ikuspegitik erakustea. Horretarako, ordu arte ikus-entzunezko hizkuntzarekin inolako harremanik eduki ez zuen jendea materialez hornitu zen, baina baita konpetentziez ere, eta sektoreko hainbat profesionali esker eta, bi urtez, aditu baten etengabeko laguntzari esker, gaur egun marka propioa duten produktuak egitea lortu dute.

Fësseko taldeak mota guztietako ekitaldi komunitarioen berri eman du 2019az geroztik: ekitaldi familiarretatik hasi eta kolektiboetara, Hahatayk edo beste kolektibo batzuek antolatutako jarduerak, eta GGKEek, lankidetzak agentziek eta Senegalgo Europar Batasunak ere kontratatu dute, itzulerako migratzaileei buruzko bideo bat egiteko. Zer kontaktzen dute eta zer ikuspegitik azaltzen dute migrazioaren fenomenoaren irteera eremu bateko 20 eta 30 urte bitarteko lau neskek?

Azken urteotan, filmaketetan, herrialde osoko zinema jaialdietan eta kirol, kultura eta gizarte esparruetan parte hartu dute, erreportajeak eta bideoklipak egin dituzte, eta garrantzitsuena: beren ikuspegitik eta beren diskurtsoarekin egin dute.

Tresna horiez gain, "balizko beste imajinario horiek elikatzen" jarraitzeko asmoz, Hahatayk komunitatearekin hitz egiten jarraitzeko hainbat gune kultural sortu zituen: Aminata Kultur Etxea, Èttu Gandiol antzerki taldea eta Dekandoo Egoitza Artistikoa. Bakoitzak bere eginkizuna badu ere, helburu komuna dute denek, gazteei aukera errealak emango dizkieten narratiba alternatiboak aurkeztea.

3. Dena da komunikazioa

Errok dioen duen bezala, "gure komunikazio estiloa eta gure komunikazio jardunak aztertuz ikusiko dugu zer garapen mota eraikitzen laguntzen dugun, eta alderantziz" (2002, 42). Komunikatzea, beraz, bat dator edozein proiektu gauzatzearekin: "ez dago bereizketa argirik komunikatzea esaten diogun horren eta garatzeko baldintza gisa ezartzen dugunaren artean" (ibid, 49).

Aurretik azaldu bezala, 2015. urteaz geroztik, Hahatay son risas de Gandiol elkarteak komunikazio estrategia bat ezarri zuen kontzientzia kritikoa eta diskurtso deskolonizatzailea sortzeko eta norberarena balioesteko, bereziki emakumeei eta gazteei zuzendua eta sorreratik Aminata Kultur Zentroari lotua. Zentro hori, 2018. urteaz geroztik, komunitatearen gizarte eraldaketaren artikulazio gune eta gizarte eragile gisa eratu zen. Era berean, Senegalgo, Euskal Herriko eta beste jatorri batzuetako erreferenteekin trukerako guneak sortu ziren, diseinuan aurrera egiteko, eta gazte eta emakume antolatuek osatutako komunikazio tresna zehatzak jarri ziren abian, hala nola Gëm Sunu Bopp FM irrati komunitarioa, Fëss Production eta Ettu Gandiol antzerki taldea. Horiek guztiek komunitatearekin garapenari buruz hitz egitea ahalbidetzen duten tresnak erabiltzen hasi ziren.

Hala ere, erakundeak ondorioztatu du espazio horien bidez komunikatzeaz gain, Hahatayrekin eta proposatzen duen garapen prozesuarekin lotura duten pertsona guztiak direla haren filosofiaren komunikatzaile. Tokiko herritarrekin harremanetan jartzen direnez, funtsezkoa da filosofia horren eredu izatea beren eguneroko jokabidean, edozein dela ere pertsona bakoitzak komunitatean egiten duen lana edo lanbidea. Izan ere, beren ekintzaren, generoa edo giza eskubideen eta ingurumen eskubideen gisako zeharkako gaietan duten posizionamenduaren eta atxikitzen diren ereduaren arteko kontraesanak nahasmenduaren eta sendotasun faltaren mezua emango luke, eta horrek eragotzi egingo lituzke bere inguruneaz eta bere premiez jabetzen den ehun komunitario eraldatzailea indartzeko ahaleginak.

Orduan jabetu ziren komunikazioak bitartekoak gainditzen zituela, eta ekintzei atxikitzen zitzaizela: nola jantzen garen, haurrak nola tratatzen ditugun, familiaren etxeko hondakinekin zer egiten dugun, nola eraikitzen dugun, atzerritarrekin nola erlazionatzen garen, etab., horrek guztiak mezu bat sortzen du, elkarreragiten duen jendeak deskodetzen duena (jakinaren gainean edo jakin gabe).

Horregatik hasi zen komunikazio komunitarioaren kontzeptua aztertzen, Latinoamerikako esperientzia teoriko eta praktikoetan oinarrituta gehienbat.

3.1. Komunikazio komunitarioa

Komunikazio Komunitarioak hitz egiteko, entzuteko, beren burua ezagutzeko eta beren komunitateen garapenaren alde jarduteko komunikabideak eta guneak eraiki eta horiei eutsi nahi dien jendea biltzen du. Baina ez edozein garapenen alde, pertsonak erdigunean kokatzen dituen garapenaren alde baizik: ahalduntzailea, eraldatzailea, ekitatiboa eta iraunkorra.

Illo horretatik, komunikatzaile komunitarioak eta komunikabide komunitarioak gizartearen egitura eraldatzera bideratzen dira, desberdintasunen eta bidegabekerien kausak identifikatuz, zeinak eragotzen baitute lortu nahi den garapena; hain zuzen ere, diskriminazioa, arrazismoa, matxismoa, indarkeria eta natura eta pertsonak espoliatzen dituen kapitalismo basatia desagerraraztea erabaki duten pertsona eta herri gisa birpentsatzeko eta berreraikitze aukera emango duen garapena.

Komunikatzaile komunitarioak komunitateak esnarazten dituen metxa dira. Hitz egiteko aukera ematen diete, munduan duten paperaren eta haren ikuspegiaren balioa azpimarratzen dute, homogeneousatu gabe hurbiltzen dituzte, hurbileneko errealitatearekin konektatzen dituzte, urrunak diruditen baina eragiten dieten errealitateekin duten lotura ulertzen laguntzen diete, interes komunen arabera aktibatzeke eta jarduteke eta beren aniztasuna balioesteko. Komunikatzaile komunitarioaren zeregina da, beraz, bere komunitatea aldatzeko motorra izatea, jokabide eredu izatea, eragile integratzailea, koherentea, tolerantea izatea, guzti-guztiak entzungo, errespetatuko eta aktibatuko dituen.

Komunikabide komunitarioak, hortaz, tokikoa eta globala konektatzen laguntzeko tresnak dira, elkarri lotutako mundu batean. Ikusezina ikusaraztea eta balioa ematea ahalbidetzen duten tresnak dira, komunitateak kanpoko mehatxuen aurrean antolatzen edo prestatzen laguntzen dute, informazio egiazkoaren, lokalizatuaren, manipulatu gabearen eta aktibatzailearen bitartez.

Ahalduntze kolektiborako tresna indartsuak dira, eta gai dira, adibidez, emakumeak ohartarazteko pairatzen dituzten desberdintasunak ez direla arazo indibidualak, baizik eta gertuko beste emakume batzuek ere badituztela, haiek ez badakite ere, eta, gainera, badituztela kontu komunak munduko beste leku askotan beste emakume batzuekin; beraz, lagundu egiten dute genero kontzientzia kolektiboa sortzen eta inguruko emakumeekin taldean ahalduntzen.

3.2. DEFART JOTNA

2015. urteaz geroztik, Hahatay Gandiolgo gazteekin dihardu lanean, *DEF'ART JOTNA* izeneko estrategian. Woloferazko hitz joko bat da, eta ekitera, ez itxarotera, gauzen norabidea berez aldatzeko gaitasunera eta sormenez egitera bultzatzen du.

DEF'ART JOTNA garapen komunitarioko laborategi bat da, eta, bertan, komunitatean funtsezkotzat hartzen diren hainbat sektore lantzen dira modu integralean. Gandiolen kasuan, honako hauek izan ziren identifikatutako 10 sektoreak: Hezkuntza, Prestakuntza, Nekazaritza eta Abeltzaintza, Eraikuntza, Osasuna, Enplegua, Turismoa, Kultura, Komunikazioa eta Ingurumena.

Horrez gainera, zeharka lantzen dira, halaber, honako esparru hauetako estrategiak: kulturartekotasuna (jatorri eta jakintza desberdinetako pertsonen arteko trukea bultzatzeko eta horietatik lankidetzaren errealeko esperientziak sortzeko, berdintasuneko baldintzatan); generoa (emakumeei eta haien ekimenei laguntzeko, baita beren interesak garatzen laguntzeko ere); eta ikusgarritasuna (aldaketa posible dela ikusarazteko eta Afrikaren beste irudi bat emateko, bertako diskurtso baten bitartez).

10 sektore horietako bakoitzean ekimen pilotuak identifikatu eta jarri ziren martxan –hainbat finantzazailereri esker, baina Euskadikoak gehienak–. Ekimen horien helburua da aldaketa sakonak eragitea sektore jakin horietan zein ingurunean.

Esperientzia horrek jakin-mina sortu zuen, bai kanpoko eragileen aldetik (Senegalgo elkarteak zein nazioartekoak, prentsa, finantzatzaileak eta lankidetzaren agentziak, etab.), bai barnekoen aldetik. Horrela, abian diren ekimenen inguruan etengabe lanean diharduten 60 laguneko gizarte oinarria sortzea lortu zen. Hainbat sektoretan sortu ziren enpleguak, soldata duin eta egonkorrekin –epe ertainera begira gutxienez–, aliantza ugari jarri ziren abian tokiko beste eragile batzuekin eta agintarien laguntza lortu zen. Eboluzioan dagoen eredu bada ere eta sektoreetako liderrek ahuleziak identifikatu badituzte ere, komunikatzeko modu berri bat sortu zela ulertu zen.

Komunikatzen ari ziren, baina zer? Kontzienteki egiten zen? Adostutako mezua zen? Laster ikusi zen esplizituki komuna zen filosofiaren ahultasuna: zer garapen eredu nahi dugu? Denak balio du? Zein dira komunitateak estimatzen dituen balioak, zeinekin dago gustura, zein utzi nahi dizkie etorkizuneko belaunaldiei?

Kontuan izan behar da komunitate baten garapena ez dagoela soilik "ageriko liderren" menpe, guztiok gara gure garapenaren eta, beraz, gure komunitatearen garapenaren eragile. Komunitatearen oinarriarekin elkarrizketa hori, truke hori, "hartu eta eman" hori, sortzeko, komunikazio komunitarioko tresnak erabiltzen ikasi behar da. Dena da komunikazioa: norbera nola janzten den, soroan pestizidak erabiltzen diren ala ez. Komunikazio tresna konbentzionalak ere komunikazioa dira, jakina (ikus-entzunezkoak edo idatzizkoak), baina horien erabilera eta ikuspegia landu behar da, entzuleekin benetako *feedbacka* sortzeko (joan-etorriko informazioa).

Ikusi zen osasunaren eta hezkuntzaren sektoreetan, besteak beste, herritarrek benetako informazio falta zutela; esate baterako, ingurumenari edo migrazioei dagozkien gaietan, politika publikoen edo herritarren ekintzen kausei eta ondorioei dagozkienetan. Ez zegoen kanal egokirik jendearengana iristeko, beren arazo zehatzei buruz hitz egin zezaten, hausnarketarako eta eztabaidarako elementuak eman eta komunitatearen beraren jakintzak oinarri hartzeko moduan.

Komunikazio komunitarioa, beraz, Gandiolen abian jarritako garapen komunitarioko prozesua (*Lab Defart Jotna*) katalizatzen tresna bihurtu da, eta, horrela, inpaktu handiagoa lortu da, izan ere, herritarren premiak eta eskaerak identifikatu eta horiei erantzuteko prest egongo den giza taldea sendotzeko aukera eman du. Gandiolen emakumeak dira gehiengoa, ahultasun handiekin, eta gazteak erabat ahaztuta daude, eta, horrela, komunikazioak izan behar du beren proiektuak eta borrorak, erasoak eta jasaten dituzten oztopoak ikusarazteko tresna; eta bertan parte hartzeaz gain, bertako gidari izango dira, hitz egingo dute, proposamenak egingo dituzte, eta beren buruari eta beren komunitateari buruzko erabakiak hartuko dituzte.

3.3 Komunikazio Komunitarioan Gaitzeko Zentroa

Hahatayko esperientzian gogoeta horiek guztiek forma hartu dute, "**Komunikazio komunitarioa Gandiolgo garapen endogenoarekin, berdintasunekoarekin eta jasangarriarekin konprometituko den herritarrak sortzeko**" proiektuaren esparruan. KCD GGKEak eta Hezkuntza eta Kulturarako Aminata Elkarteak aurkeztu zuten proiektua eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak finantzatu zuen, 2019ko proiektuetarako deialdian. Haren emaitzetako bat izan zen Komunikazio Komunitarioan Gaitzeko Zentroa (CCC) izeneko programa trebatzailea diseinatzea eta abian jartzea.

Gandiolen garapenarekin konprometitua egongo diren herritarrak osatzeko estrategia jarraitzea eta sakontzea proposatzen du proiektuak, komunikazio komunitarioko tresnetan babestuta betiere. "Nahi den toki garapenak" giza eskubideak ditu oinarri: genero berdintasuna, ingurumenaren iraunkortasuna, bertakoaren babesa, komunikaziorako eskubidea eta elikadura burujabetza.

Ildo horretatik, CCCren ikuspegiak oinarri hartzen du nahi den garapenaren alde lan egiten duten guztiek komunikatu behar dutela hori eta haren logika filosofikoaz eta zeharkako engranajeez jabetu behar dutela, hura azaldu eta beren komunitateetara zabaldu ahal izateko; era horretara, tokiko erreferente eta munduko beste eskualde eta leku batzuetarako alternatiba iraunkorreko eredu bihurtuko dira.

Izan nahi dugun garapena gorpuztea

CCCn komunikazio komunitarioa da prestakuntza esperientziaren ardatz nagusia, hau da, komunitatearen usteak, kezak eta proposamenak ezagutarazteko aukera ematen duen gune bat, baita ekintzak bideratuko dituen garapen filosofia bat partekatzeko aukera ematen duena ere. Helburua da komunitate horretako erakunde eta pertsona aktiboak sustatzea eta komunikazio komunitarioa lengoia bat dela ikastea, pertsonak beren historiak kontatu ditzaten, beren antzinako memoria berreskura dezaten, beren ezagutza, jakintza, bizipenak, ohiturak, hizkuntza eta eguneroko bizipenak ager ditzaten, hausnartu, jardun eta horren guztiaren erabilera sozial, kultural eta politikoa egin dezaten, komunitatea egituratzeko narratio gisa. Eta hori guztia aukera emanez ikasitakoa partekatzeko, beharrezkoa denean herritarrak sentsibilizatzeko eta ezagutzak modu kolektiboan eraikitzeke.

Hauek dira helburuak:

- Lurraldearen errealitateak, arazoak eta proposamenak ezagutzera emango dituzten informazio eta ezagutza berriak sortzea.
- Ikuspegia eta konpromisoa izango duten komunikatzaile komunitarioak prestatzea; sortzeko, adierazteko eta aztertzeke gaitasunekin.
- Identifikatutako 10 garapen sektoretan garapen esperientzietan sakontzea eta horiek optimizatzea, eredu pilotuak sortzeko, garapen sektoretan nagusi den paradigmatik bestelako paradigmatik abiatuta.
- Iritziak, pentsamenduak eta proposamenak adierazteke lekuri ez duten gazteentzat, ikasleentzat eta sektore baztertuagoetako emakumeentzat adierazpenerako eta partaidetza sozialerako guneak zabaltzea.

Horretarako, hiru prestakuntza multzo ematen dira. Horien guztien baturak aukera ematen du komunitateen eta horien ingurunearen garapenean aktiboak diren eragileak benetako komunikatzaile komunitario bihurtzeko, eta gai izateke dagoeneko parte diren garapen eredu endogenoa, ekitatiboa, parte hartzeke eta jasangarria –zeinaren parte diren jada– biderkatzeke. Horretarako, ikasten dute beren ezagutzak eta beren “izaten jakitea” eta “egiten jakitea” helarazten eta komunitateari entzuten, haren premiak eta proposamenak jasotzeke; era horretara, garapen kolektiboari laguntzen diote.

1. Filosofia: garapen komunitariorik begira ulermena eta lan filosofia komuna sortzeke oinarritzko zenbait printzipio ideologiko esploratzea: zeharkako ikuspegiak: afrikar autorrealizazio komunitarioa, generoa, ingurumena, migrazioak eta giza eskubideak, garapen pertsonala.
2. Tresnak: komunikazio komunitarioen printzipioetan eta mezuak eta informazioa bi norabidetan bideratzeko oinarritzko tresna nagusietako batzuen ezagutzan sakontzea (komunitaterantz eta komunitatetik): ahozkoitasuna, irratia, ikus-entzunezkoak eta komunikazio komunitarioko kanpainak.
3. Esperimentazio guneak: eremu teknikoak sendotzea, parte hartzaileak aktibatzen diren 10 sektore pilotuetan ahulmentzat hartutako unean uneko alderdien ezagutzetan modu praktikoan sakontzeke, nekazaritza eta abeltzaintza nabarmenduz funtsezko sektore gisa.

Lehenengo bi blokeak (filosofia eta tresnak) komunak dira parte hartzaile guztientzat, eta hirugarren blokean (eduki teknikoak), berriz, prestakuntza espezifikoa egiten da, garapen sektore bakoitzean aktibatzen diren talde txikietan.

Proiektu honen hiru urteko bilakaeran hainbat metodologiarekin lan egin da, aintzat hartuta, betiere, sorrera printzipio hauek:

- Ezagutzaren sorkuntza partaidetza bidezkoa da: trukearen bitartez, esperientziak partekatuz, informazioa, trebetasunak, gaitasunak eta konpromisoak emanaz eta jasoz.
- Herri adierazpena eta jakintzak balioztatzea.
- Sormena eta konpromisoa balioztatzea.
- Tokiko sareak eta sare nazionalak bultzatzea.
- Hizkuntza berriak ekoiztea: beharrezkoa da hizkuntzak, formak eta estetikak berrasmatzea, eta ikuspegi eta aukera narratibo berriak eskaintzea garapen sektore guztietan.

4. Profesionalei deika

Afrika, Boubacar Boris Diop senegaldar idazleak gogorarazten digun bezala, erakunde homogeen bat baino askoz gehiago da. Kontinente eskerge hori 54 herrialdek osatzen dute, eta horietako bakoitzak aniztasun etniko aberatsa eta konplexutasun sozial eta politiko handia du. Bertako mugen barruan, bizitzeko eta mundua ulertzeko mila modu bizi dira elkarrekin. Gainera, Afrikaren historia bi ezaugarri nagusik markatu dute: batetik, migrazioak, gizadia sortu zen garaiaz gerotikoak, eta bestetik, europarrak iritsi aurretik loratu ziren zibilizazioen arteko interakzio konplexuak, hala nola Egipto, Sudan, Hego Afrika, Ghana edo Mali. Horri erantsi behar zaizkio esklaboaren salerosketa, kolonialismoa eta globalizazioa, arrasto iraunkorrak utzi dituztenak kontinentearen gaur egungo egituraketan.

Bestalde, garrantzizkoa da gogoeta egitea Afrikak Espainian izan duen ordezkartza mediatikoari buruz. Ikuspegi geografikotik hurbil badaude ere (14 km-ko distantzia baino ez), komunikabideek gutxitan erakusten dute auzo kontinentean sortutako informazio ugaria. Agenda mediatiko nazionalean nagusi dira gerren, goseteen, miseriaren eta era guztietako hondamendien irudiak, eta bigarren lekuan uzten dute gure gizarteei balioa eman eta aberastuko lukeen guztia. Bazterrera uzten dira narratiba positiboak, garrantzizko ekarpenak eta Afrikako aniztasun kulturala eta hizkuntzari dagokiona. Beharrezkoa da irudikapen ekitatiboagoa eta pluralistagoa egiteko eremuak zabaltzea, aniztasunez beteriko kontinente horren ikuspegi osoagoa eta aberasgarriagoa emango diguna.

Simplifikazio horretaz jabetuta (erredukzionismoa / ezjakintasuna / gutxiespena), 2011n Casa África hamaika kontakizun eskatu zizkion auzo kontinenteko kazetari eta komunikatzaileei, eta haiek fenomeno horri buruz egin zuten gogoeta; "Cuadernos Africanos Comunicación / Si hablas de nosotros..." (Komunikazio Koaderno Afrikarrak / Gutaz hitz egiten baduzu...) argitaratu zen ondorioz.

Hautatutako testuetan jardunbide txarrak aztertzen dira, baita mendebaldeko komunikabideek kontinenteari buruz ematen duten ikuspegi higitua ere. Artikuluen izenburuek ezin hobeto adierazten dute hori: *Paradisu humanitarioa: Afrikak irudi berria behar du?*, *Paratxutariet, turistei, GKE-ei eta paseko beste hegazti batzuei buruz*, *Diktaduratik 'demokratutara'*, *Hauteskundearen artea Afrikan...*

Komunikabide handiek Afrikako gaiei buruz jardutean duten axolagabekeria horren eta Afrikari eta bertako gaiei buruzko ezjakintasun enkistatuaren arrazoiaren artean hauek aipatu ohi dira: esperientziarik eza eta "beste historien" bila bertara kazetariak bidaltzeko baliabide eskasak; gutxi bidaiatu duten herritarrek, esaterako espainiarrak, eta ikusleek gero eta interes gehiago edukitzea beste gai batzuek, denbora pasarako hutsalakeriez eta topiko informatiboek, analisis ez egiteak baino.

Arao horri erantzuteko, zeina Hahatayn ere handienetakotzat hartzen baitzen lortu nahi zen "imajinarioen berreraikuntza" horretan, 2019an "bi itsasertzen arteko kazetaritza topaketa" proposatu zen, JournAfrique izenburuarekin, *journalisme* hitzaren (kazetaritza, frantsesez) eta *Afrique* (Afrika) hitzen arteko hitz jokoak eginez.

Bi urtez behin antolatzen diren jardunaldi horien abiapuntua zen komunikabideek (afrikarrek eta mendebaldekoek) afrikar herriek beren nortasunari, ahalmenei eta nahiei buruz osatutako imajinarioan duten inpaktuari eta eraginari dagokion gogoeta. Helburua da gogoeta egitea, lankideen arteko trukea eta ardatz estrategikoak finkatzea, Afrika kontinenteak komunikabideetan duen tratamenduari buruzko proiektu kritikoak eta konprometituak diseinatzeke. Topaketa hori ez da inolaz ere berritzailea: Casa África berak antzeko mintegiak antolatu zituen urte batzuk lehenago, Madrilan. Baina orduko hartan Afrikan egin ziren⁹, eta afrikar erakunde batek antolatuta.

9 Afrika - Espainia kazetarien Topaketaren lehenengo bi edizioak, Casa África antolatuak, Madrilan egin ziren, 2016an eta 2018an. III.a lehenengo aldiz afrikar herrialde batean egin zen, Kenyan, 2021ean, COVID-19 pandemiaren ondorioz atzeratu eta gero, 2020rako aurreikusita baitzegoen.

Lehenengo edizioan, 2019ko urtarrilean, Jose Naranjorekin (EL PAÍS) elkarlanean antolatua, gai hauek komunikabideetan zuten tratamenduan jarri genuen arreta: migrazioa, emakumearen rola Senegalen, irudien eta sare sozialen ahalmena, eta herritarrengan ikuspegi kritikoa eta ahaldundua sustatzeko aliantzak. Senegalgo Irrati Asoziatiboak eta Komunitarioak, Afribuku eta AfricaDoc (Senegal), African Review (Gambia), El País/Planeta Futuro, Cadena COPE eta El Periódico (Espainia), Mauriweb (Mauritania), eta kazetari independenteak eta blogariak, idazleak, etab.

Bigarren topaketa, 2021eko otsailean, Angela Rodríguez Perearekin (Afribuku) lankidetzan, migrazioaren gaiarekin zerikusia duten historietan jarri genuen arreta, COVIDaren ondorengo garai honetan gaurkotasan handiko gaia baita. Honakoak izan ziren parte hartzaileak: Journal Rappé (Senegal), Afroféminas, Caminando Fronteras (Helena Maleno), ASNUCI, Red Migraciones, Género y Desarrollo, ONI, Radio África aldizkaria, El Diario.es, Cadena Ser, OIM Senegal, Elín Ceuta Elkarte, France 24 eta Arrantzontzietako Komunikatzaileen Senegalgo Elkarte. Edizio hibridoa izan zen, aurrez aurrekoa – online.

2023ko otsailean, Sani Ladanen (ELIN elkarte) eta Oxyjeunes Codou Loum irrati komunitarioko kazetarien eskutik, 4 mahai inguru proposatu ziren gai honen inguruan: "Herritarren parte hartzea eta eskubide demokratikoetara sarbidea", Afrikako bost herrialdeetako parte hartzaileekin (Senegal, Mauritania, Mali, Kamerun eta Nigeria), Espainiako komunikabide bat (Carne Cruda) eta Afrikar diasporaren ordezkariak Europan.

Jardunaldi horiei esker, eta lehenengo edizioaren ondoren, Hahatayn aukera izan genuen ordu arte aurrekaririk izan ez zuen kazetaritzako proiektu batean parte hartzeko, 2019. urtean. URTEBETE SAINT LOUISEN¹⁰ proiektuaren bitartez, El País espainiar egunkariko Planeta Futuro sailak zuzendua, hiriko sektore eta angelu guztietatik eman zituzten albisteak (Gandioletik 20 km eskasera dago), urtebetez, 15 kazetari eta argazkilarirekin baino gehiagorekin, eta Atlantikoaren bi aldeetako kolaboratzaileekin. Gandiolgo gazteek erreportariei lagundu zieten, argazkiak egin zituzten, erredaktatu zuten eta erreportajeak zuzendu zituzten.

Garrantzi handiko esperientzia izan bazen ere, ez zen atzerriko komunikabideetarako *fixers* gisa jarduten zuen lehena. Nazioarteko kazetariei beren lanean babesteko helburuarekin –ondo ulertu ditzaten jokoan diren gaiak eta senegaldar gizarteak zenbait gai direla-eta egindako ekarpenak ematen dituzten ikuspegiak–, urteak daramatzagu komunikabide handientzat *fixers* gisa lan egiten. Konfiantza dute gudan, errealitatearen "irakurle" gisa: agendak programatzen ditugu, pertsonak prestatzen ditugu elkarriketak egiteko eta itzulpenak egiten ditugu, gaiei buruzko geure ikuspegia emanez. Catalunya Telebista, Kanarietako Telebista, Televisión Española, Radio 3, New York Times, La Vanguardia, El País, Movistar+ dira Gandioletik eta Sant Louiseko eskualdetik igaro diren eta zerbitzu hau jaso duten komunikabideetako batzuk. Zerbitzu horrek, guretzat, Afrikari buruzko "narratibak aldatzeko" ildoari jarraitzen dio, eta kontinente honetako zein mendebaldeko garapenari laguntzen.

Interneten rola afrikar informazioa nazioartekotzeko zereginean

Munduko beste leku batzuetan gertatzen den bezala –baina Afrikaren testuinguruan komunikabide tradizionaletan identifikatutako ahultasunak kontuan hartuta–, interesgarria da eranstea, Afrikako gizarte mugimenduek eta kazetari taldeek komunikazio tresna indartsuak aurkitu dituztela Interneten eta gizarte sareetan, eta horiei esker beren mezuak anplifikatua, beste leku batzuetako profesionalekin lankidetzan jardun eta zentsurak modu eraginkorragoan saihestu ditzaketela.

10 2023ko ekainaren 10ean kontsultatuta, hemen eskuragarri:

[<https://elpais.com/especiales/2019/planeta-futuro/vida-cotidiana-en-saint-louis-senegal/>]

Gaur egun Senegalen bizitzen ari garen krisi sozial eta politikoaren antzeko egoeratan gertatu ohi den bezala, Internet eta gizarte sareak profesionalei balio diete krisi horien kausei buruzko informazioa zabaltzeko eta jende gehiagoren artean kontzientzia sortzeko. Bisualki erakargarria den edukiaren bitartez, bideoen, irudi deigarrien eta lekukotasunen bitartez, modu eraginkorren komunikatzeko beren mezuak eta aurretik iritsi ezina zen jendearengana iritsi. Prestakuntza duten eta profesionalki bermatuta dauden komunikatzaile horien eta herritar antolatuen arteko harremana funtsezkoak dira kaleetan edo herrialdeko leku atzeratuenetan gertatzen denaren informazioa kontrastatzeko.

Horrez gainera, sareak aukera eman dute harresi geografikoak gainditzeko, eta gizarte mugimenduei eta komunikazioaren alorreko profesionalei askatasunez mintzatzeko eta gobernuek zeinbatetan ezarritako murriztapenak gainditzeko plataforma eskaini diete. Plataforma horiek kontrolatzen eta zentsuratzen zailagoak izaten dira, askotan, komunikabide tradizionalekin konparatuta, eta horrek aukera ematen die aktibistei informazioa partekatzeko eta giza eskubideen bortxaketak edo bidegabekeriak mugarik gabe salatzen.

Bestalde, beste latitude batzuetako kazetariekin loturak sortzeko balio dute, eta, horrela, lankidetzan jarduteko eta baliabideak, estrategiak eta esperientziak partekatzeko aukera ematen diete. Era horretara, mendebaldeko kazetariak sarbidea dute (eta aitzakiarik gabe) bestelako iritzietara eta aurretik deskribatutako paradigma katastrofikitik irteten diren historietara, Hegoaldeko beren lagunen laguntzari eta aholkuei esker, zeinak erraz truka baititzakete sare sozialen bitartez.

Hala ere, garrantzizkoa da kontuan hartzea Interneterako eta sare sozialetarako sarbidea ez dela berdina Afrika osoan, eta desberdintasun handiak daudela eskualde batzuetatik besteetara, azpiegiturei eta konektibitateari dagokionez. Gainera, sareko desinformazioa eta manipulazioa erronka handiak izan daitezke, asmo txarreko eragileek plataforma horiek erabil ditzaketelako informazio faltsua zabaltzeko eta izen oneko profesionalen sinesgarritasuna ahultzeko.

5. Ondorioa: Elkarrizketa zabaltzea: migratzeko askatasuna, bisitatzeko eskubidea eta maitasunaren ahalmena

Hahatayren fundatzaile eta lehendakari Mamadou Dia ezagutu nuenean, honela esan zidan: "Sentitzen dut mundu guztia Gandiolera gonbidatzeko eginkizuna dudala". Hala, 2012. urteaz geroztik, Espainian barrena ibili ondoren (telebistako saio baten eskutik) Senegalera lehen aldiz itzuli zenean, eta gaur egun arte, 2020ko COVIDaren ondoriozko etenaldiekin, milaka pertsona etorri dira mundu osotik herrialdearen iparraldeko landa eremu honetako errealitatea ezagutzera.

Gandiolgo gazteek adin eta jatorri askotako pertsonak "hartzen dituzte" beren etxeetan, Espainia eta Euskadikoak bereziki. Beren bizitza, lanak eta garapenarekiko konpromisoa erakusten diete, ez tokikotzat hartuta, baizik eta globalizat. Topaketa horietan, bizitzako arazoei buruz egiten dute eztabaida, eta, horrela, behartuta daude jarrerak hartzera, argumentuak ematera, mundu partekatu honetan, zeinetik askotan baztertuta sentitzen baitira, duten lekua defendatzera.

Era horretara, gazte talde irekia, kritikoa eta prepositiboa osatzen joan da, eta berehala jabetu ginen bidaiatu egin behar zuela. Sustapen lan handi bati esker, Hahatayk Gandioleko 25 gazte baino gehiago bidali ahal izan zituen bisatu "profilik" gabe (eskumena duten erakundeek dioten bezala), bisita eta prestakuntza bidaietan parte hartzera. Hainbat lekutara bidaiatu eta horiek bisitatu zituzten, jendea ezagutu zuten, ideiak trukatu zituzten, eta, azken batean, beren eskubideak gauzatu zituzten¹¹. Lotuta dagoen munduaren ikuspegi irekiago batekin itzuli ziren etxera. Kamerundar Achille Mbembe historiagile eta politologoak Pentsamenduaren Tailerren 4. edizioan¹² azaldu bezala (Dakar, 2022): "haien bisitatzeko eskubidea".

Gure ustez munduak asko ikasteko du kontinenteari buruz, hainbat krisi ditugun garai honetan. Felwine Sarrek dioen bezala, "Afrikan eredu egoki bat aurki daiteke, banakakoa vs komunitatea binomiotik urrun, eta asmo pertsonalak batuz premia kolektiboak ahaztu gabe, eta, ondorioz, taldearen bizitza ziurtatuz"¹³.

Sinesten dugu, PorCausa Fundazioko lankideek dioten bezala, geure burua "maitasunaren narratibetan"¹⁴ ezagutzeko premian, non bestekotasuna ez den erreferentzia izango, baizik eta anaitasuna eta sororitatea.

"Maitasuna da irtenbideak eratzen, sortzen eta eskaintzen dituzten eta berrirudikatzea sustatzen duten prozesu horien, harreman horien eta dinamika horien multzoa. Maitasunak eskaintzen du gure konbentzio barneratuenak berriz zehazteko gunea, eta orobat orekarekin hausteko eta aldaketa eta errealitate berriei begirako etorkizunak berriz zehaztekoa. Ildo horretan, maitasuna ez bat-batekoa edo pasiboa; aitzitik, ezinbesteko ekimen politikoa da jardun demokratikoetan, aldatzeko eta batzeko tresna bat, aniztasun eta desberdintasun kolektiboaren barruan askatasun publikoaren alde egiten duena" (Fundación PorCausa, 2023: 13).

Hori guztia komunikazioa zentzu zabalean hartuta eratzen da, zeinak komunikabide konbentzionalak gainditzen baititu, beste forma batzuk ere kontuan hartuz, hala nola gorputzari, sinbolikoari, teknologikoari, politikoari eta tradizionalari dagozkionak: eseri, elkarri begiratu eta elkarri hitz egin. Ez al da hori komunikatzea?

11 Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Adierazpen Unibertsalaren 13. artikulua: "Pertsona orok du askatasunez mugitzeko eskubidea eta bere bizitokia Estatu baten lurraldean hautatzeko. 2. Pertsona orok du eskubidea edozein herrialdetatik ateratzeko, berea barne, eta bere herrialdera itzultzeko".

12 "Los Talleres de Pensamiento en Dakar se consolidan como cita histórica", Laura Feal eta Ángela Rodríguez Perea, 2022. 2023ko 10ean kontsultatua, hemen eskuragarri: [<https://elpais.com/planeta-futuro/africa-no-es-un-pais/2022-04-03/dakar-los-talleres-de-pensamiento-se-consolidan-como-una-cita-historica.html>]

13 "Reflexiones de la élite africana sobre la sociedad del mañana", Laura Feal, El País, 2018. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: [https://elpais.com/elpais/2018/01/31/planeta_futuro/1517409727_533082.html]

14 Aktibista eta teorialari feminista beltzetan inspiratuak, besteak beste bell hooks, Audre Lorde eta Toni Morrison.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- BERRIGAN, Frances J. (1981): *La comunicación comunitaria. Cometido de los medios de comunicación comunitaria en el desarrollo*, UNESCO, Paris.
- COMMISSION DE L'UNION AFRICAINE (2015): *AGENDA 2063, L'Afrique que nous voulons*, AUC, Addis Abeba.
- DIA, Mamadou eta Inmaculada DIAZ NARBONA (ed.) (2014): *3052. Persiguiendo un sueño* [Pasarteen hautaketa]. Biblioteca Africana – Biblioteca Virtual Miguel de Cervantes. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: <https://www.cervantesvirtual.com/obra/3052-persiguiendo-un-sueno-seleccion-de-fragmentos/>
- ERRO, Javier (2002): *Comunicación, Desarrollo y ONGD*, HEGOA, Bilbo.
- HAHATAY (2019): *Plan estratégico Hahatay (2019-2023)*. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: https://hahatay.org/wp-content/uploads/2020/12/OK-PLAN-ESTRATEGICO-HAHATAY-2019_2024.pdf
- KCD GGKE, Asociación Aminata para la Educación y la Cultura eta Hahatay (2019): "Comunicación comunitaria para forjar una ciudadanía comprometida con el desarrollo endógeno, igualitario y sostenible de Gandiol" proiektuaren formulazioa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarako. Argitaragabea.
- NBGP (2011): *Comunicación para el desarrollo: fortaleciendo la eficacia de las Naciones Unidas*, NBGP, New York. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: <https://unsdg.un.org/sites/default/files/c4d-effectiveness-of-UN-SP.pdf>
- RODRÍGUEZ-ALARCÓN, Lucila eta Violeta VELASCO Violeta (2023): *Narrativas migratorias del amor. De la solidaridad a la Comunidad*, PorCausa Fundazioa. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: https://porcausa.org/wp-content/uploads/2021/12/Narrativas_amor_4.pdf
- SARR, Felwine (2018): *Afrotopía*, Los Libros de La Catarata, Madril.
- THIONG'O, Ngugui Wa (1986): *Decolonising the Mind: The Politics of Language in African Literature*, Heinemann, Portsmouth, Nairobi.
- UNESCO (2021): *Prioridad global "África": proyecto de estrategia operacional para la prioridad "África" (2022-2029)*, UNESCO.
- Zenbait egile (2011): *Cuadernos Africanos Comunicación / Si hablas de nosotros... Casa África*. 2023ko ekainaren 10ean kontsultatua. Hemen eskuragarri: https://www.casafrika.es/sites/default/files/old_cms/casafrika/Publicaciones/Cuaderno_4.PDF

1. **Garapenari buruzko pentsamenduaren bilakaera: teoriak, estrategiak eta adierazleak.** Luis Guridi, Hegoa Institutua Ekonomia Aplikatua I Saila. 2017.
2. **Garapena eta iraunkortasuna: bilakaera, bateragarritasuna eta ikuspegiak.** Iker Etxano Gandariasbeitia, Ekonomia Aplikatua I Saila, UPV/EHU. 2017.
3. **Garapena feminismitik aztertzen.** Yolanda Jubeto Ruiz, Mertxe Larrañaga Sarriegi, Hegoa Institutua, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
4. **Garapenerako lankidetzeta eta bere bilakaera.** Irati Labaien Egiguren, Jorge Gutiérrez Goiria, Hegoa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
5. **Amildegari so: krisi ekosozialari aurre egiteko zenbait oinarri.** Joseba Azkarraga Etxagibel, Soziologia Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
6. **Migrazioak eta garapena Win-win agertokia posible ote?** Gorka Moreno Márquez, Xabier Aierdi Urraza, Ikuspegi – Euskal Immigrazioaren Behatokia. Euskal Herriko Unibertsitatea.
7. **Ekonomia soziala: Ikerketa-objektua eta analisirako lanabesak.** Enekoitz Etxezarreta Etxarri, Juan Carlos Pérez de Mendiguren Castresana, Ekonomia Aplikatua I Saila. Gezki Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. Enpresen Antolaketa Saila. Hegoa Institutua. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
8. **Globalizazioa eta tokiko garapena.** Mikel Zurbano, Elena Martinez Tola, Xabier Gainza, Pablo Arrillaga, Ekonomia Aplikatua I Saila, Euskal Herriko Unibertsitatea.
9. **XXI. mendeko pobrezia. Benetan ezabatzeko proposamenak.** Alfonso Dubois Migoya, UPV/EHUko irakasle erretiratua, Hegoa Institutua.
10. **Elikadura-sistemak: Elikadura Burujabetzaren eta Agroekologiaren estrategia askatzaileak.** Efen Areskurrinaga Mirandona, Ekonomia Aplikatua I UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Mirene Begiristain Zubillaga, Finantza Ekonomia II UPV/EHU eta Hegoa Institutua. Eduardo Malagón Zaldua, Ekonomia Aplikatua V UPV/EHU Hegoa Institutua.
11. **2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: jatorria, edukia eta jarraipena.** Andrés Fernando Herrera Herrera, HEGOIA Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
12. **Gobernantza eta herritarren partaidetza.** Jone Martínez-Palacios, Andere Ormazabal Gaston, Igor Ahedo Gurrutxaga, EHUko Politika Zientzia eta Administrazio Saileko kideak eta demokrazia partizipatiboari buruzko Parte Hartuz ikerketa-taldeko ikertzaileak.
13. **Gatazka armatuak, bakea eta garapena.** Itziar Mujika Chao eta iker zirion landaluze, UPV/EHUko Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia Saileko irakasleak, eta Hegoa Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutuko ikertzaileak.
14. **Finantza etikoak, ekonomia solidarioa sustatzeko tresna ekonomikoak eta politikoak.** Cristina de la Cruz-Ayuso, Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea. Pedro Arrupe Giza Eskubideko Institutua.
15. **Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia.** Carlos Askunze Elizaga, REAS Euskadi. María Angeles Díez López, UPV/EHUko Hegoa Institutua eta REAS Euskadi.
16. **Kontabilitate Finantzarioaren begirada zabalduz Gizarteari eta Naturari buruzko informaziora. Gizarte Kontabilitatearen jatorria, eboluzioa eta etorkizuneko erronkak.** Ainhoa Garayar, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Maider Aldaz, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Igor Alvarez, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea –Gipuzkoako Atala–. Jone Arocena, Gestoría Aguirre Gestión.

17. Txina: Garapen eredia birbideratzea eta munduko ekonomian zeregin berria. Juan Barredo-Zuriarrain, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatua I Saileko irakasle laguntzailea. Ricardo Molero Simarro, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Egitura Ekonomikoko eta Garapenaren Ekonomia Saileko irakaslea.
18. Happykrazia: psikologia positiboaren hedapena eta bizitzaren psikopatologizazioan duen eragina. Maria Lopez Castillo, HEGOAEHUko Globalizazioa eta Garapena Masterreko ikasle ohia. Galdakao-Usansolo Ospitaleko erizaina.
19. Herri Administrazioaren erosketak: berdeak, sozialak, berritzaileak... arduratsuak Artizar Erauskin, Ekonomia Aplikatua I Sails. Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
20. Klima-aldaketari buruzko hitzaurrea: inpaktuak eta egokitzapena. Elisa Sainz de Murieta, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa. Marta Escapa¹, Basque Centre for Climate Change (BC3), 48940 Leioa, Analisi Ekonomikoko Sails, EHU.
21. Sumak kawsay, buen vivir, bizitze ona: Garapenari alternatiben bila. Unai Villalba-Eguiluz, UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakasle-ikertzailea. Ekonomia eta Enpresa Fakultatea-Araba.
22. Errenta eta aberastasun banaketaren desparekotasuna munduan. Patxi Zabalo Arena. Ekonomia Aplikatuko Institutua eta Hegoa Institutua, UPV/EHU.
23. Pobrezia generoaren ikuspegitik aztertzeo gakoak. M^a Luz de la Cal Barredo. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea. Lan Harremanen eta Gizarte Lanaren Fakultatea.
24. Nazioarteko merkataritza globalizazioaren garaian: aurrekariak, ezaugarriak, arauak, eztabaidak, eta ingurumariak. Eduardo Bidaurrezaga Aurre, Elena Martinez Tola. Hegoa-UPV/EHU.
25. Turismoa garapen-tresna gisa lurralde pobretuetan. Josu Benito Andikoetxea. Garapena eta Nazioarteko Lankidetzeta Masterreko ikasle ohia. HEGOAE Institutua UPV/EHU.
26. Etxebizitza beharra eta ekonomia kolaboratiboa: cohousing fenomeno. Maddi Montero. Ekonomia eta Enpresa zientzietan Graduatua da. Aitziber Etxezarreta. Ekonomian doktorea eta UPV/EHUko Ekonomia Aplikatua Saileko irakaslea da, eta GEZKiko (Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutua) idazkaria.
27. Megaproiektuak Hazten ari den fenomeno korporatibo baten ikuspegi globala. Gonzalo Fernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Erika González. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Juan Hernández. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria. Pedro Ramiro. OMAL-Paz con Dignidad elkarteko ikerlaria.
28. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza edo itxaropenaren alde borrokatzeo erronka. Gema Celorio Díaz. Hegoaren Hezkuntza Taldea. Juanjo Celorio Díaz Hegoaren Hezkuntza Taldea. Amaia del Río Martínez Hegoaren Hezkuntza Taldea. Iris Murillo Hidalgo Hegoaren Hezkuntza Taldea. .
29. Komunikazioa eta garapena: joan-etorriko bidaia bat. Laura Feal Sánchez.

